

## A7

*Un caso que acaesció al autor en un camino con una dama*

Aurrekoa bezala, errima lerro bikoitietan duten distikoen (10 -, 8 a) segida da poema hau. Ustezko gertakizun baten kontakizun zehatza da. Dirudenez mutila (narratzailea) zaldi gainean doa (horregatik *apeadu* behar da 86. lerroan), San Joan bezpera egunean, Iruraizko baso batetik (Lazarragaren jaioterritik hurbil, hortaz) eta Katelinatxorekin elkartu da. Hizketan hasi dira eta mutilak zuzen-zuzen agertu dio bere maitasuna, eta azaldu dio ikusi duen egunetik dagoela maitemindurik. Neskak ez du egun horretan bizkorregi ibili gura (mutilak bai!), baina hitzordua eman dio egun gutxi barru leku berean elkartzeko. Hala mutilaren nola neskaren jarrerak, hitzak eta keinuak ereduazko gorteiatzeari dagozkio (95-96. lerroetan kenduta, hor metafora zakarrak baliatu baita mutila, neska ehiza gisa aipatuta).

&lt;1170v&gt;

*Un caso que acaesció al autor en un camino con una dama*

Jandoneanez bezpera<sup>1</sup> baten  
 igaro nintzan basoti,  
 Iruraizko ermandadean<sup>2</sup>  
 leku on baten aldeti.  
 Dama bategaz topadu nintzan, 5  
 lindea parebagarik;  
 berba egiten hasi ninzakan,<sup>3</sup>  
 jarri ginean geldirik;  
 neure bizian ekusi ez dot  
 hain gauza abisadurik.<sup>4</sup> 10  
 Forma honetan berba negion,<sup>5</sup>  
 ez jat anzitu<sup>6</sup> barbarik:  
 —Alabatzen dot zeruan Jauna,  
 bide dodana eginik,<sup>7</sup>  
 zegaiti nabere zuregaz batu, 15  
 lindea, heben<sup>8</sup> bakarrik.  
 Edola bere, joan baino lehen,  
 oi<sup>9</sup> behar dozu ikasi  
 zure amorez, ene laztana,  
 nola nagoan galdurik.— 20  
 Eranzun zidan utra<sup>10</sup> kortesdo,<sup>11</sup>

<sup>1</sup> *Jandoneanez bezpera*: ‘San Joan bezpera’.

<sup>2</sup> *Iruraizko ermandadean*: Iruraizko ermandadea 18 herrik osatzen zuten: Alaitza, Arrieta, Azilu, Erentxun, Ezkerkotxa, Gazeo, Gauna, Gereñu, Jauregi, Langarika, Trokoniz (hamaika hauek egungo Iruraitz-Gauna udalerrira osatzen dute), Dulantzi (ermandadeko herriburua), Egileta, Luskando, Burgu, Arbulu, Argomaiz, Gazeta eta Añua. Lehenengo ermandadeak XIII. mendean sortu ziren, herriak gaizkileetatik eta nobleziaren bidegabekerietatik defendatzeko. XVI. mendearen lehen erdian Arabako lurraldea 53 ermandadetan antolatu zen, sei kuadrilatan bilduta (eraketa horrek 1840 arte iraun zuen, Gasteizko kuadrila bitan banatu baitzen).

<sup>3</sup> *ninzakan*: ‘nintzaion’.

<sup>4</sup> *abisadurik*: ‘zuhurrik’.

<sup>5</sup> *berba negion*: ‘berba egin nion’.

<sup>6</sup> *anzitu*: ‘ahantzi, ahaztu’.

<sup>7</sup> *bide dodana eginik*: ‘bidezkoa dudana eginik’.

<sup>8</sup> *heben*: ‘hemen’.

<sup>9</sup> *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>10</sup> *utra*: ‘oso’.

	<p>begiak abajadurik:          —Neure buruau erraz daidit          nik ditxosatzat edugi,<sup>12</sup>          jentil onbrea, zegaiti naxan          egin ni zugaz topadiz;<sup>13</sup></p>	25
<1171r>	<p>oi eta barriz osteangoan,<sup>14</sup>          arren, ze begit<sup>15</sup> burlarik.—          —Ene laztana, ene fedea,          ez dot egiten burlarik.          Egun askotan ni ebili naiz,          ez dot edugi ditxarik,          ene lindea, zu ekusteko;          banago sepultadurik.—<sup>16</sup>          —Oi, arren, jauna, ixilik bego,          ze besat<sup>17</sup> orrelakorik,          oita zegaiti zu eraiteko<sup>18</sup>          nik eztot poderiorik.—          —Poderioa handia dozu,          Zeruko Jaunak emunik;          zure begiok ekusizkero,<sup>19</sup>          banago katigaturik.<sup>20</sup>          Pensamentuok altuan ditut,<sup>21</sup>          zuk ala merezidurik,          oi eta ez dot abajaduko          neure bizian punturik.—          —Zure berbaok adietako<sup>22</sup>          ez dot entendimenturik;          klaruxeago<sup>23</sup> berba egizu,          edo zaoza<sup>24</sup> ixilik.—          —Ene laztana, zure bildur nax,          ezin egin dot barbarik.          Nik klaruago banesakezu,<sup>25</sup>          oi baneu lizenziarik.</p>	30 35 40 45 50

<sup>11</sup> *kortesdo*: ‘korteski, adeitsuki’.

<sup>12</sup> *erraz daidit / nik ditxosatzat edugi*: ‘erraz eduki nezake ditxosatzat’.

<sup>13</sup> *zegaiti naxan / egin ni zugaz topadiz*: ‘bestela bezala topo egin dudalako zurekin’.

<sup>14</sup> *osteangoan*: ‘hurrengoan’.

<sup>15</sup> *ze begit*: ‘ez biezat egin, ez diezadala egin (berorrek)’.

<sup>16</sup> *sepultadurik*: ‘ehortzirik’; hemen erabilera metonimikoa du eta ‘hilik’ esan nahi du; ikusi beheraxeago neskaren erantzuna.

<sup>17</sup> *ze besat*: ‘ez biezat esan, ez diezadala esan’.

<sup>18</sup> *eraiteko*: ‘hiltzeko’; *ero* aditzaren aditz-izena da.

<sup>19</sup> *ekusizkero*: ‘ikusten ditudan momentutik’. Perpaus honetan baldintzazko ñabardura ere antzeman daiteke, beharbada.

<sup>20</sup> *katigaturik*: ‘gatibaturik’; garai hartako maitasun-poesietan “begiek gatibatzea” topiko arrunta izan zitekeen.

<sup>21</sup> *Pensamentuok altuan ditut*: ‘helburuak oso goian ditut’.

<sup>22</sup> *adietako*: ‘aditzeko, ulertzeko’.

<sup>23</sup> *klaruxeago*: ‘piska bat klaruago, argiago’.

<sup>24</sup> *zaoza*: ‘zaude, egon zaitez’.

<sup>25</sup> *banesakezu*: ‘esango nizuke, esan niezazuke’.



	—Jaun Zerukoaren amorearren, <sup>44</sup> jauna, zaoza <sup>45</sup> geldirik;	90
	basoan neurau bakarrik nago, ze begit <sup>46</sup> agrabiorik.— —Ene laztana, ezin neike <sup>47</sup> nik horrelako gauzarik;	
	kulpa handia ezarri leidae, <sup>48</sup> ehiza galdu banegi.— <sup>49</sup> —Jentil onbrea, ez neikezu <sup>50</sup> neure bizian barbarik, oi eta bardin <sup>51</sup> ezpazeegit oi orain itxi <sup>52</sup> librerik.	95
	Bihar-etziak hurrean datoz; arren, betorke hebeti. <sup>53</sup> Al dagidana nik egingo dot, ez hartu atsekabarik.— —Horrela gura dozun azkero, <sup>54</sup>	100
	ezin neike <sup>55</sup> besterik. Domekaan <sup>56</sup> etorriko naiz, eztot egingo faltarik. Askotan ondo geratu zatez, ene lindea, bakarrik. <sup>57</sup>	105
<1172v>	Oi etsegino lagun deizut, <sup>58</sup> badozu borondaterik.— —Eskerrik asko, jentil onbrea, ez dot ardura lagunik, <sup>59</sup> gaakustenak <sup>60</sup> oi ez dagien pensadu beste gauzarik.— Itxi neutsan, <sup>61</sup> berbaxe hoek <sup>62</sup> neure laztanaz <sup>63</sup> eginik:	110
		115

<sup>43</sup> *geurtxeok*: ‘guk geuk’.

<sup>44</sup> *amorearren*: ‘amoreagatik’.

<sup>45</sup> *zaoza*: ‘egon zaitez’.

<sup>46</sup> *ze begit*: ‘ez biezat egin, ez diezadala egin (berorrek)’.

<sup>47</sup> *ezin neike*: ‘ezin egin nezake’.

<sup>48</sup> *ezarri leidae*: ‘ezarriko lidakete, ezar liezadakete’.

<sup>49</sup> *ehiza galdu banegi*: *Ehiza* neska da, dudarik gabe. Izan ere, neskak erantzuten dionagatik, argi dago mutila gehiegi hurbiltzen ausartu zaiola, agian heldu ere heldu diola. Mutilaren azken hitzak ere alde honetatik datoz: *berori defendidu jat eta / ni geratu nax galdurik* (A7: 119-120).

<sup>50</sup> *ez neikezu*: ‘ez nizuke egingo’.

<sup>51</sup> *bardin*: ‘baldin’.

<sup>52</sup> *ezpazeegit / oi orain itxi*: ‘orain utzi ez bazeniezat, orain utziko ez bazenit’.

<sup>53</sup> *hebeti*: ‘hemendik’.

<sup>54</sup> *gura dozun azkero*: ‘nahi baituzu, nahi duzunez’.

<sup>55</sup> *ezin neike*: ‘ezin egin nezake’.

<sup>56</sup> *Domekaan*: ‘domekan’, inesibo singularreko marka (-an) izenari erabat asimilatu gabe.

<sup>57</sup> *Askotan ondo geratu zatez, / ene lindea, bakarrik*: ‘Ondo geratu zaitez bakarrik, ene lindea, askotan’.

<sup>58</sup> *lagun deizut*: ‘lagunduko dizut’.

<sup>59</sup> *ez dot ardura lagunik*: ‘ez dut nahi lagunik, ez zait interesatzen inork lagun egitea’ adiera bide du.

<sup>60</sup> *gaakustenak*: ‘ikusten gaituztenek’.

<sup>61</sup> *Itxi neutsan*: ‘utzi nuen’.

<sup>62</sup> *berbaxe hoek*: ‘berbatxo hauek’.

<sup>63</sup> *laztanaz*: ‘laztanagaz, laztanarekin’.

—Berori<sup>64</sup> defendidu<sup>65</sup> jat eta  
ni geratu nax galdurik.—

120

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A7 – *Un caso que acaesció al autor en un camino con una dama* (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

<sup>64</sup> *Berori*: Lazarragaren eskuizkribukoak errespetuzko *berori*-ren lehen agerraldiak bide dira. Bestalde, aipatu behar da zutik *berorira* aldatu dela, solaskidea aldatu gabe; gauza bera egiten du hiru poematan.

<sup>65</sup> *defendidu*: ‘kontra egin’.